

# Aretxa gazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1998ko urtarrilak 9 • 136. zka.



## 1998ko

# Aretxabaletari begira

Gabonetako errepassoa ■ Iritzia: Inaxio Garro ■ Elkarrizketa: Marta Izaoirre



# Zelakoa izan da 97a, eta 98a zelakoa izango da?

## Ane Zubizarreta

(9 urte)

Aurtengo urtea ona izan da. Laugarren mailan nabil eta nota onak atera ditut.

Datorren urtean bostgarren mailan hasiko naiz eta gehiago ikasi beharko da.



## Jose Altube

(Jubilatua)

97a ona izan da denean, osasunean, diruan... hurrengo urterako hobia izatea nahiko nuke.

Jubilatuta nago eta oso ondo bizi naiz batzutan aspertu ere egiten naizen arren.



## Angel Mari Etxabe

(Langilea)

Iazkoa ona izan zen eta aurtengoa iazkoa modukoa izatea nahiko nuke.

Denon artean adostasun batera heltzea eta pakea lortzea nahiko nuke.



## Cristina Velasco

(Langilea)

97a ona izan da niretzat. Lanean egon naiz eta aurtengo urtean ere horrela izatea eskatuko nuke, lana izatea eta osasunez ondo egotea.

Guztionez pakea lortzea ere ondo legoke.



## Rosa Moragues

(Langilea)

Iazko urtea ondo joan da eta hau hobia izango balitz hobe.

Lana eta osasuna eskatzen ditut urte berrirako.



## Gilen Aginagalde

(9 urte)

97a erraza izan da. Examin gutxi izan ditugu eta samurrak izan dira.

Datorren urtera begira kirola gehiago praktikatu nahi dut eta baita tronpetako ikasketak ere.



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

# “ A R I N S A ”

## Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”

Tfnoa: 79 62 80

ARETXABALETA

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz.  
**Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre.  
**Erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Publizitate arduraduna:** Rosa Mondragon. **Kolaboratzaileak:** Julen Zuazabetia, Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** EguzkiGRAF. **Tirada:** 2.500 ale.  
Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da.  
**Legu gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es  
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

# Aretxagazeta

## Arau berdinak denontzat?

Azaroaren 3ko alkatetza dekretu baten bidez, Herri Batasuna gobernu batzordetik baztertua izan zen. Hau egiteko arrazoia honako hau izan zen: urriaren 25ean Batzokiak jasandako eraso ez genuela gaitzetsi.

Joan den martitzenean, abenduak 16, eta osoko bilkuran, Amnistiaren aldeko komiteak aurkezturiko mozio bat onartu zen, zeinean Kepa Urrak jasandako torturak (judizialki ere baieztatuak), gaitzesten ziren. PSOEk ezik, beste alderdi guztiok egin genuen geure gaitzespen hau.

Hau ikusirik, bilkuran bertan galdera bat luzatu genion Alkatzari. Gu ekintza biolento bat ez gaitzes-teagatik gobernutik baztertuak izan baginen, berdin egingo da beste ekintza biolento bat gaitzetsi ez duen PSOErekin? Hau da, denok arau berdinekin gara epaituak ala ez?

Alkatzaren erantzunaren zain, Atxabaltar guztioi luzatu gura dizuegu galdera berdina, zuek ere gai garrantzitsu hau aztertu ahal izan dezazuen.

**ARETXABALETAKO HERRI BATASUNEN  
ZINEGOTZI TALDEA**

## Atxabaltarrondako urte berri onak

Urte berriarekin batera, bada herritarrokin gogoratu eta urte berri onak bidaltzen dizkigun atxabaltar bat. Gabonetan Benito Gaztañagak Canariasetik deitu gintuen eta urte berri zorionsua opatu zigun atxabaltar guztioi.

Gure partetik eskerrik beroenak bidali nahi dizkiogu Benitori; badakigu urte berriko lehen Aretxagazeta noiz iritsiko zain egongo dela, irakurle fidela baitugu. Urte berri on guztioi Benitoren partetik.

## Mail-a Kataluniatik

Internetari esker Aretxagazetara heldu dira lehen mail-ak. Horieta bat kurioa iruditu zaigu, Angel, katalan batek idatzitakoa da eta gure herriko aldizkariak interesa azaldu du. Hasiera batean, euskeraz egiten du sarrera eta ondoren erdaraz jarraitzen du: "kaixo, ni katalana naiz eta pixkat euskeraz; no he podido entender la mayoría de las cosas de la web, pero creo que estás promocionando un pueblo; ánimos que la web está muy bien diseñada. Agur".

Badakizue beraz, kartak, kontsultak, iritziak, etabar adierazi dezakezuela Aretxagazetako mail-een.

## Irakurleari

Urte berriaren hasiera Aretxagazeta aldizkarian aldaketa garaia izan ohi da. Jadanik, Internet bidez mundu guztian irakurri daiteke, baina honek ez du suposatzen aurten ere hobekuntzak izan behar ez direnik.

Ale honetatik aurrera lau orrialde gehigo izango ditu aldizkariak eta honek, sail berrien hasiera dakar. Iritzi artikulua eta beka nahiz lanpostu deialdiak agertuko dira eta tarteka beste hainbat arlo; sukaldaritza, elizateetako informazioa, etab. Bestalde, koloretan publizitate gehiago izango da. Halere, aldizkariak izan dezakeen beste gai edo arloren bat irakurleari bururatzen bazaio, bere iritzia ere kontutan hartuko da.

Dena den, orrialde gehitze hori beste helburu batekin ere egin da, irakurlea ere partaide izatea nahi da, herrian sustraituago egon dadin.

Besterik gabe, Aretxagazeta berri hau atseginagoa eta osatuagoa egingo zaizun asmotan.

**ARETXAGAZETAKO BATZORDEA**

## Zuzenketa

Joan den abenduaren 18ko Aretxagazetak argitaratutako trenari buruzko artikuluan egindako oker bat zuzentzeri noa. Bertan esaten nuen Victoriano Olalde izan zela azkeneko trenari urteera agindu ziona, Aurelio Lopez de Aberasturi izan beharrean. Aretxabaletako geltokiko "jefe" plazarekin etorri zen azkena Victoriano Olalde izan zen, baina honek, 1960an Oñatiko geltokiko destinoa eskatu zuen. Harez gero, zenbait jefe "interino" edo ordezkioak egon ziren, Koldo Etxeberria -oso ezaguna bihurtu zena- eta Aurelio Lopez de Aberasturi, besteak beste. Aureliok, nahiko aspertuta ordezkapenak egiten, bertan zegoela eskatu eta eman zioten titulartasuna, nahiko denbora gutxirako izan bazen ere.

Miguel Uribetxeberriari eskerrak ematen dizkiot lerro hauen bitartez, berak adierazi baitzidan okerraren susmoa.

**JULEN ZUAZABEITIA**

*©kindegia - Gazolegia*



**Aretxabaleta**  
Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81  
Aretxabaleta  
Bertako okina

**PLAZAS  
SUNZUE S.A.**



**FELIX  
PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33  
Etxekoa: 79 42 56

**GEMES**

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18  
Aretxabaleta

# Gabonei errepasoa



## ● OLENTZERO GURIA

Kalera jeitsi bezain laster, a ze ume piloia inguratu zitzaion Olentzerori! Txikiak musu eta eskutitza emateko gertu eta nagusiagoak karameloak eskatzeko. Eskerrak gure Olentzero eskuzabala den.


## ● OLENTZEROK SEKULAKO ARRAKASTA

Gure Olentzero ezin dela toki guztietara heldu eta urtero bezala, morroiak bidali zituen Kurtzeberri Eskolara opariak banatzen. Emozio eta ilusioz beteta itxoin zuten umeek bere erregalua noiz jaso.




## ● KANTUAN ETA DANTZAN

Gabonetan gabon kantei protagonismoa hartzen dute. Santa Rita ikastetxean ume danak ibili ziren kantari oporrak hartu aurreko azken egunean. Ederki kantatzeaz aparte, dantzarako ere trebeak zirela erakutsi zuten.



## ● OLENTZERO TXIKIENEKIN

Menditik jeitsi ondoren, Pausokako umeak ere bisitatu zituen Olentzerok. Txintxo-txintxo Olentzeroren inguruan eseri eta kantuan eta galdezka aritu zitzaizkion. Izan ere, azken honek pipa bai, baina albarkak beharrean botak ekarri zituen jantzita eta horren zergatia jakin nahi izan zuten umeek.



## ● GAZTETXEAN TXALAPARTA IKASTAROA

Gazte asanbladak eta Loramendi elkarteak antolatutako txalaparta ikastaroa gaztetxean eman zen. Arrasateko bi irakasleen eskutik, animatu ziren hamabi lagunek ondo ikasi zuten jotzen, txakun, erren...

Orain kantera haundia dugu herrian, ea hurrengo jaietan erakustaldia egiten diguten.

## ● KANTUZ-KANTU KALEAN ETA BASERRIETAN

Gabon egunez kantuek alaitu zituzten herriko bazter guztiak. Ortzadar atsedean taldeak goizean goizetik baserriak gabon kantez girotzen zituen bitartean, kalean, umeen ahots leuna entzun zitekeen portalétan. Gabonei eta Olentzerori ongiatorria emateko modu bikaina alegia.



## ● GABONETAKO KONTZERTUAK

Sasoi hauetan ohikoak izaten dira kontzertuak eta gurean ere musika saio bikainak izan ditugu gabonetan. Horien artean argazkietan Leizarra musika eskolak eskainitakoa eta herriko txistulariena dugu, fin ibili ziren. Baina besterik ere izan zen, akordeoi kontzertua eta Naroa Enekotegi mezzo sopranoak eman zuena. Naroaren ahots ederrak parrokiaren batutako jendetzaren lilura sortu zuen.






● OGIZ EGINIKO ESKAPARATEA

Aurtengo eskaparate irabazleak ikusgarria izateaz gain, jateko gonbitea egiten du: ogiz eginikoa baita. Lehenengo saritua Jauregi okindegia izan genuen, bigarrena Imanol harategia eta hirugarrena Martin bitxitegia. Zorionak guztiei eta gainontzeko komertzioei ere eskaparateak mimo guztiz apaintzeagatik.

● INTSUMISO EGUNEAN INUZENTADA GALANTA

Abenduaren 28an, inuzente egunez ospatu zen Intsumiso eguna. Eta nola ez, egun aproposa horretarako, ziri ederra sartu ziguten oraingo honetan talde antimilitaristakoek. Kotxe karabana, trikitalariak, gaztaina erreak sagardoarekin, manifestazioa eta mus txapelketa inuzentea antolatu zuten. Azken honek izugarrizko jendetza batu zuen eta baita haserrea sortu ere inuzentada zela jakin zutenean.

Inuzente, inuzente! horrelako egunetan argi ibili behar da.



● BENETAKO TRENA?

Batek baino gehiagok benetako trenara heldu zela pentsatu zuen Argazki Artxiboko taldeak jarri zuen erakusketa ikusten ari zela. Tren railak, maletak, "Anglo Vasco Navarro" trenaren argazkiak eta gainera trenaren zarata. Orain 30 urte kendu zen trenaren aztarnak, gertu gertutik bizitzeko parada izan genuen.



● MELTXOR, GASPARETA BALTASARrek...

eskatutako guztia ekarri duten ez dakigu, baina jakin dugunez, aurten erregeek ikatz ugari banatu dute gure herrian. Beraz, badakizue datorren urterako hobeto portatu.

ARGAZKI

*UrKiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

IMANOL  
JANARI DENDA

Harategia  
BEREZIKI Urdaitegia  
Fruitategia  
Gorbea kalea 79 05 83 ARETXABALETA



## Katalanaren legea

**“Gizartearen komunitate osoak kate luzea osatzen du, eta kate horren pieza guztien artean zelabaiteko sintonia minimoa behar da”**

**U**rte zaharra bukatzeaz zegoela, Kataluniako Parlamentuak aztertu eta onartutako gai batek dialektika eta polemika bizia piztu zuen CIU eta PPre artean, Jordi Pujol eta Alvarez Cascos elkarri botatako iritzi sortaren protagonista bihurtu zirelarik.

Hain zuzen ere, 1983tik geroztik indarrean zegoen “Katalanaren Legea” mahai gainean jarri zen aztergai eta berori aldatzeko proposamena egin zuten, Kataluniako gaurko gizartearen aldarrikapen eta beharretara egokitzeko asmoz. Aldaketa horrek, esan bezala, haserrea eragin zuen Madrileko PPkoengan, parlamentari Katalanen %80ak aldaketa horren aldeko apostua egin zuten arren.

“Euskararen Legea” ere ez da atzokoa, baina zoritxarrez gure hizkuntz-egoerak ez dauka, ezta urrunetik ere, Katalanarekiko traza handirik. Begibistakoa da irakas-kuntzan, administrazioan edo komunikabideetan, batez ere, aurrerapausu

nabariak eman direla. Halare, gizartearen komunitate osoak kate luzea osatzen du, eta kate horren pieza guztien artean zelabaiteko sintonia minimoa behar da, horiek guztiak erritmo eta bide beretsutik joan daitezen.

Hitz horien esanahian beste tes-tuinguru batera eramanez, orkestra batean ez da nahikoa musikari guz-tiak maila haundikoak izatearekin; izan ere, orkestra-zuzendariak ja-rritako erritmoari eutsi beharko diote eta sinfonia bera jo beharko dute. Bestela, emaitza erabat irrazioanala izango litzateke.

Pena ematen dit horrela aitortzeak, baina euskaldunon komunitate honengan sinismena dudan arren, koherentzia falta handia somatzen dut piezen artean. Asko lortu da, baina oraindik ere bide luze eta lan nekeza gelditzen zaigu, guztioi. Dena den, lan gogorraren ondorioz lortu-takoak ahogozoa uzten du.

**INAXIO GARRO**

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

**ORTOPEDIA  
ORTO LAGUN**

*Zorionak  
eta urte berri on!*

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 34

**BITXITEGIA**

**MIREN & ZURIÑE  
BITXIEN DISEINUA**

**BITXIEN-KONPONKETA**  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean



# Marta Izagirre

## Bi urtez Arrasate Musikaleko zuzendari

Marta nahiz eta Aretxabaletan bizi, Arrasaten pasatzen du denbora gehien. Duela 12 urte hasi zen Arrasate Musikalen pianoa ikasten eta azkenengo bi urtetan akademiako zuzendari karguan dugu.

**- Nondik datorkizu musikarekiko zaletasuna?**

- Musikarekiko zaletasuna txikitatik datorkit, etxean horixe ezagutu izan dut betidanik eta. Nire amak piano ikasketak zituen eta nire aitaren familian ere bazegoen organoa jotzen zuen fraile ospetsu bat, Arrue izenekoa. Etxean pianoa genuen eta ia nahi gabe hasi nintzen jotzen. Sei urtekin hasi nintzen solfeo klaseak hartzen Aretxabaletan bertan, eta beranduago pianoa jotzen ikasteko Arrasaten Mari Asun Berecibarrekin. Pianoko laugarren kurtsoa bukatu nuenean, Arrasate Musikalen sartu nintzen eta bertan ikasi nuen zazpigarren kurtsoarte.

**- Zein momentutan erabakitzen duzu musikara bakarrik dedi- katuko zarela?**

- UBI edo COU bukatu nuenean hartu behar izan nuen erabakia. Zalantza handiak izan nituen eta biologia ikasteko ere bota nuen eskaera. Hala ere, pianoko ikasketak bukatzea erabaki nuen eta Donostiara joan nintzen bi urtez. Bukatuta gero, hortara dedikatzea



**“Euskal Herri mailan betidanik izan da musikarekiko zaletasun handia”**

pentsatu nuen, hainbeste urte ikasten pasatu ondoren, ezinezkoa zen beste karrera batera dedikatzea

**- Nola heldu zinen Arrasate Musikalera?**

- Orduan, Gurutze Uribarrenek laguntzen zituen kantoko klasean

pianoz Arrasate Musikalen. Utzi beharra izan zuen eta nire ahizpari komentatu zion ea nire ama edo prest egongo ote zen. Baina nire ama ez zenez animatu, ni hasi nintzen. Piskanaka piano eta solfeo klasean ematen hasi nintzen, eta gero eta sakonago sartzen Arrasate Musikalen.

**-Eta noiztik zuzendari?**

- Lanean 85ean hasi nintzen eta hamar urte pasatu ondoren, 95ean izendatu ninduten zuzendari. Bi urte daramazkit kargu honetan, eta egia esan hasieran pentsatu baino hobeto irten dira gauzak. Hasieran beldur piska bat ere baneukan, niretzat erronka bat zen zuzendari izatea. Bi urte hauen balantzea egiten badugu,

pozik nago eginiko lanarekin, uste dut nahiko ondo funtzionatu dugula. Aurtengoa hirugarren kurtsoa denez, berriz egingo da zuzendariaren hautaketa. Klaustroak erabakiko du.

**- Orokorrean, gaurko gizartean nola ikusten duzu musikarekiko zaletasuna?**

- Euskal Herrian beti egon da zaletasun handia, batez ere abesbatzetan. Hala ere, urteekin gauzak asko aldatu dira. Abesbatzatik aparte, orkestra berri asko sortu dira. Esate baterako, Euskadiko Orkestra eta hedatu berria den Gazte Orkestra daude. Bestalde, musikara dedikatu nahi duenak espezialitate gehiago ditu, akademiak hobeto preparatuta daude eta abar.

**Marti**

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK

**RKU**

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 96 66  
Fax: 77 10 33

**Maritxu**

Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABAleta



**MAPFRE**

Aseguroak

Errekabarren, 3  
Tfnoa: 77 11 76



**BEHEA PENA KI!**


**UNITED COLORS  
OF BENETTON.**

**Maialako Errabala, 13 • ARRASATE**

# Nolakoa izango da 98ko Aretxabaleta?

1997a bukatu zaigunez, 98ak guztioi ekarriko diguna ezagutzeko irrikitan gaude. Ez da erraza hori jakitea eta beharbada, gehiegi eskatzea da, baina herri mailan eta arlo desberdinetan martxan dauden proiektu eta beste plangintza batzuk jasotzea nahi izan dugu aurtengo lehendabiziko erreportai honetan. Horretarako, interesgarri iruditu zaizkigun zazpi arlo desberdin aukeratu ditugu, eta bakoitzean egoki bezala ikusi dugun pertsonari ondorengo galdera egin diogu: **Nolakoa izango da 1998ko Aretxabaleta?**

## ▶ KIROLA



### Aretxabaletako kirola urte berriaren aurrean

Hasi berri dugun 98 honek Aretxabaletako kirolari ekarriko diona iragartzen jartzea baino zentsuzkoagoa izango delakoan, hona hemen Aretxabaletako kirolak urte berri honetan jarraitu beharko lituz-



keen ildo nagusiei buruzko neure iritzia:

Ezer baino lehen, zein kirolez ari gara hitz egiten? Hiru hitzetan honela sailkatuko nituzke helburu eta ezaugarri ezberdinak dituzten kirolak: Eskola kirola, Aisialdiko kirola eta Kirol Federatua.

Aretxabaletako Udalak, kirol jarduerak eta kirol instalazioak eskaintzerako orduan, helburu nagusia herritar guztien bizitza kalitatea hobetzen laguntzea dela kontutan izanik, garbi dago nondik nora jo beharko duten gure ahaleginek:

- Aretxabaletako arlo eta adin guztietako biztanleentzat ahalik eta kirol eskaintza zabal eta ugariena antolatzea.
- Herri mailako kirol instalazioak modurik egokienean kudeatzea.

Beti ere, eskaintzaren kalitatean arreta berezia jarritz eta kirol arloan lanean arituko garen guztion elkarlana bultzatuz, noski.

**Asier Mugika**  
**KIROL TEKNIKARIA**

## ▶ GAZTEDIA

### Gazteen esku etorkizuna

Gazte taldearen ustez, orokorrean gaur egungo gazte atxabaltarra, gizarte honek bizi duen errealitatearen islada da; hau da, individualismoak bultzaturiko gizarte komodo eta kontsumista bateko partaide.


Etorkizuna lapurtu nahi izan digute. Gure helburua gazteongan ilusioa piztea da eta dagokigun etorkizuna eraikitzea. Horretarako guk geuk egin behar dugu bidea, elkartasuna eta arazo sozial zein gazte problematikak gureak eginez eta konponbideak bilatuz.

Arazo hauen aurrean erantzun bat emateko sortu da gazte taldea eta herriko gazte guztiok bertan parte hartzera animatu nahi zaituztegu.

**GAZTE TALDEA**

## ▶ EKONOMIA

### Ekonomiako abiapuntua



Nire ustez, abiapuntua egokia da, 1997ko bukaera ikusita.

Ziklo ekonomiko positibo batean sartuta gaudenez, 1998ari begira, baikorrak izan behar dugu.

Europa mailan eta gure bailaran ere, industriak perspektiba onak ditu, dirudienez.

Ziurraski honek, enpresa-ekin lotuta dauden zerbitzuen-dako, ondorio positiboak edukiko ditu, eta kontsumoarekin lotuta dauden zerbitzuendako ere bai.

Lanpostuei begira, okupazio maila ona izango da ziurraski. Bainan enplegu egonkorra sortzea, gaingitu gabe gelditzen da.

Aretxabaletan eraikitzen diren etxebizitzak, lantegien egoera baikorra, jarri diren zerbitzuko enpresa berriak, adierazle itxaropentsuak dira.

Argitzeko dago gure bailarako komunikazioaren hobekuntza, horrek ere eragin handia eduki dezake.

Ni, industriarekin lotuta dauden zerbitzuak garatuko direlakoan nago.

Gainera, baldintza egokiak ditugu (tituludun jendea, heziketarako azpiegitura,...) enpresa aurreratua sortzeko. Gure eskuetan dago.

**Joxe Miguel Arregi**  
COPRECICO GERENTEA

## ▶ EUSKARA

### Herritarrengana heltzeko bideak jorratu

Hasi barri dugun urte honi begira, Loramendik orain arteko bideari jarraitzea pentsatzen du. Azpitalde bakoitzak bere esparruan lan egingo duen arren, guztien arteko elkarlanak herritar guztiengana heltzeko bideak jorratu gura ditu.

Honela, eskolaz kanpo euskararekin harreman gutxi duten haurrak (ludoteka), erdararako joera handiagoa duten emakumeen esparrua (Tril) eta Gizar-te Sektore desberdinek sinatu zuten euskararekiko konprometua (Berbari Hitzarmena) izan-go ditugu, besteak beste, jarduera esparru.



Kalean gehien ezagutarazten gaituen Kulturgintzaren alorra be, ez dugu alde batera itxiko, guk egitetik besteei laguntzera pasatu guran, herrian dauden kultur elkarte guztien arteko elkarlana bultzatuz. Nobedade gisa, bertso eskola martxan jarriko da lehenengo hilabetetan.

Azken urteetan bezala, Berbari Hitzarmenak pisu berezia izango du gure eginbeharretan. Talde eta elkarteek hartutako konpromezuek daramaten bide onari jarraituz, Merkataritzan sartzeko lehenengo azterketak egin dira, gehien aldetik jarrera ona eta interes handia agertu delarik. Merkataritza

Aretxabaletan nahiko debil dagoen sektorea izanik, itzulpen, material sormena eta aholkularitza zerbitzuak eskainiko zaizkie, beti be, euskaraz funtzionatzeko bideak eginez.


**Amaia Ugartemendia**  
BERBARI HITZARMENeko  
TEKNIKARIA

## ▶ BASERRIA

### Baserriaren etorkizuna

Urte barri baten aurrean, beti baikor eta itxaropentsu egoten gara, batez be, hobeia izan dadin aurretik ahalegin haundiak egin direnean. Baina lurrari lotutako nekazaritza bultzaketan dogunok, badaukagu datozen urteotan zerk kezkatu. Izen be, guk lurrari ematen diogun erabilerak, lehentasuna aspaldi galdu bazuen be, oraindik be atzerago bidali gura da, hau da, lur sail bat nekazaritzarako izango da, bertan urtegiren bat ez badoa, errepide, etxebizitza, aisiagune edo hirigintza planen bat asmatzen ez den bitartean. Azken aldian entzuten diren ahalegin guztiak horretarako direla ikusten dugu. Nekazaritza, martxa honetan, erreserbatan jarduteko geldituko da.

Guk, zelaiek, soroek eta basoek merezi duten begirunea betik izan dezaten lurra landuko dugu.



**Julen Abasolo**  
ABELTZAINA

## GIZA ZERBITZUAK

### Gizarte zerbitzuak eta prebentzioa



Aspaldi honetan gizar-tearen eboluzioa ikusiaz, gure departamentuak uste duen arazo garrantzitsuenetariko bat, familia barruan sortutako konponezinak eta beraiek eragiten dute ondorioa izango da (kideen arteko harremanetan, seme-alabak, bikotea, gizartearekin harremana, eskolan, lanean eta abar)

Famili Eskuhartze eta bitartekotze egitasmoarekin aurrera jarraitzea da gure asmoa datorren urterako. Familia barruan hezitzaile baten bidez harremanak hobetu, baliabideak sendotu eta giroari aldaketa bat ematearen helburuz. Familiaren interbentzioak, askotan psikologo baten laguntza ere behar izaten du, arazoak larriagoak edo eta sakonagoak izaten direlako eta hori ere bultzatzen dugu.

Horretaz aparte, betiko ekintzak eta programak ere aurrera eramango ditugu, besteak beste laguntza ekonomikoak, etxez-etxe laguntza, zaharren egoitza, elbarrituei zuzendutako laguntzak, emakumearen eta haurren saila (banaketa ara-

zoak, tratu txarrak eta abar eta beste hainbat arazo.

Eta bukatzeko, prebentzio mailan, tratamendurako laguntzatatik aparte arlo hauek ikutuko dira: osasun heziketa, prebentzio eskolarra eta familiarra, gurasoen lan taldeak, eta gizartearen sensibilizazioari lotutako beste hainbat ekintza.

### ARETXABALETAKO GIZARTE LAGUNTZAILEAK

## KULTURA

### Kultura bateratuaren aldeko apustua



98a oso garrantzitsua izan daiteke kultura arloan gabilzanontzat. Nire hamaikagarren urtea eskainiko diot aurten kultura sailari eta asko ez badira ere gure herriak kultur heldutasuna lortu duela esango nuke.

Gaur egun, Musika eskolak duen indarra, ikastolak euskalduntzeko egin den lana, Beinke-Loramendik egin dituen apostuak eta aurrerapausuak, Aretxagazetak duen nortasuna, Loramendiko dantza eta txistu taldeak eraiki

dituen sustraiak, etabar. herriko kulturak jasan duen garapenaren islada dira.

Hauetz gain ezingo ditugu herriko gainontzeko taldeak ahaztu: Ortzadar, Murruxio eta Zeraia mendi taldeak, Bustintxo keramika taldea, Margo Lagunak, Okila, Hiruatx, Zikloturistak, Arlutz, Argazki artxibo taldea, Aratz, Talde Antimilitarista, Ludoteka, Akordeoi orkestra, Abesbatza, Saretxo (informatika taldea), Rock taldea, telebista proiektua, etabar... guzti honek ez al du herritarron mugimendua eta borondatezko lana adierazten? Kultur aberastasun handia da gure herrian eta kultur ekintzetan herritarron interesa eta borondatezko lana goraiatzekoak dira.

Pertsonalki aurtengo urteari begira, herriko taldeen egoera aztertzea beharrezkoa ikusten dut. Badira lokalik ez duten taldeak eta beste batzuk lokala behar bezalako baldintzetan ez dutenak. Kultur etxea bera ere ez dago inondik inora baldintza egokienetan, honen birmoldaketaren aldeko apustua egingo nuke.

Alde horretatik gure herriak kultura saila eta kultur taldeak batuko dituen edifizio bat behar du. Utopikoa dirudien arren, inbertsio sakona egin beharko litzateke gure herriak merezi duen duintasuna eta kultur kategoria izan dezan.

Beraz, kultura alorrean ikerketa sakona egingo nuke 98an, beharrak eta lehenetasunak zeintzuk diren ikusi eta herriko kulturari merezi duena eman.

**Inma Miguel**  
**KULTUR TEKNIKARIA**



# Gabonetako pelota txapelketa

## Deba Garaiko 48 pelotari izan dira txapelketan

Pelotak ere bere protagonismoa izan du gabonetan. Gabon egunez, giro bikainak lagundurik, pelotazale eta pelotari bezala zen Iturrigorri frontoia VI. gabonetako txapelketako finalak jokatzeko. Danera Deba Garaiko 48 pelotari izan dira lehiaketan; horien artean neska bakarra eta beronek jaso zuen, gainera, teknika onaren saria: Oihana Matak. Finalean peloriak gogor borrokatu zuten txapeldun eta txapeldunorde postuetarako, atxabaltarrak fin ibili ziren, ikusi bestela lortutako emaitzak:



Txapelketan parte hartu duten pelotariak



Txapelketako pelotari txapeldun eta txapeldunordeak



Oihana Matak, txapelketako neska bakarrak, teknika onenaren saria jaso zuen

**Aurre-benjaminak:**

Txapeldun: Lur Uribetxebarria.  
Txapeldunorde: Gilen Aginagalde

**Benjaminak:**

Txapeldun: Jon Altube  
Txapeldunorde: Jon Berasaluze

**Alebinak (Lehen urtea):**

Txapeldun: Gorka Etxabe  
Txapeldunorde: Gorka Uribetxebarria

**Alebinak (bigarren urtea):**

Txapeldun: Errarte (Eskoriatza)  
Txapeldunorde: Aritz Kortabarria

**Infantilak (Lehen urtea):**

Txapeldun: Txurruka-Txomin (Elgeta-Plazentzi)  
Txapeldunorde: Iñarra-Azagirre (Bergara)

**Teknika onenaren saria: Oihana Mata**

**LASA AGUILERA**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26

**LEIBAR**  
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
ARETXABALETA

**MEMESA S.L.**

**Industriaren alde**  
Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA

# Peña Zubizarreta torneoan arrasatearrak nagusi

Gabonetan Peña Zubizarretak antolatzen duen A-7 futbol torneoa jokatu da. Aurten oso arrakastatsua izan da txapelketa, 12 talde izan baitira guztira, iaz baino bost gehiago; horien artean, sei Arrasatekoak, bost Aretxabaletakoak eta talde bakarra Eskoriatzakoa. Partiduak abenduaren 22an hasi ziren eta egunero jokatu dira Ibarako futbol zelaietan. Finalak hilaren 5ean jokatu ziren eta bertan Construcciones Cañas talde arrasatearra nagusitu zen. Esan beharra dago iaz ere talde bera izan zela torneoaren irabazitzailea. Bigarren beste arrasatear batzuk geratu ziren: Bizkorak; hirugarren, Aston Villa Aretxabaletako taldea eta ondorengoak hauexek izan ziren: 4. Bar Basilio; 5. San Viator; 6. Kopyprest; 7. Arrasate Kirolak A; 8. Arrasate

kirolak B; 9. Luis Eceiza; 10. Men In Zerbaite; 11. Los Trogloditas; 12. Orkatz Txorixo.

Talde guztiek jaso zuten merezitako saria eta gainera beste sari bat ere egon zen. Atezain onenaren saria Alex Azkargortak jaso zuen.

Beraz, zorionak txapelketan parte hartu duzuen guztioi.



Alex Azkargortak atezain onenaren saria jaso zuen

Arrasatearrak sailkatu ziren lehenengo bi postuetan, hirugarrenak atxabaltarrak izan ziren



"Construcciones Canas" aurtengo txapelketa irabazitzailea izan zuten irabazleak



Hirugarren postua lortu zuen Aston Villa talde atxabaltarrak

**Jauregi Okindegia**

Otalora, 10  
Aretxabaleta

Izozkitekari-Gozotegia  
**IZOZKITEGI**

Otalora, 11  
Tfnoa: 79 93 58  
ARETXABAleta

**Zenbaki**

Basabe  
Industrialdea  
**Aretxabaleta**  
Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99

**Aholkularitza**

**IRIARTE**

Umeen denda

Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 10 96

**ARQUERO**

**CONSTRULAN S.L.**

Eraikuntza eta indusketak

Tfnoa: 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABAleta

Zuzendaria:  
Lyonel Arquero

Dekorazioa:  
Soraya Arquero

**Mobiliario ARENAZA**

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABAleta

# EUSKAL HERRIKO FAUNA ETA FLORA (6)

## Otearen taldea

**Guztiok ezagutzen ditugu artikulu honetako protagonistak, sarri burrुकatu behar izan baitugu beren arantza zorrotzen aurka. Landare hauek sastrakadi eta basoetan ere hazten diren arren, ezin ukatu gizakiak egindako bideetan duten presentzia.**

**Z**uhaixka oso adarkatuak dira, eta bakoitzaren puntan hainbat lore bizi erakusten digute. Loreak simetria bilateralak du, zehazki esateko papilionazeoak da (tximeletakara). Ikusi irudian. Fruitua leka barnean gordetzen dutenez, landare hauek lekadunen multzoan sailkatu dira. Hona hemen gure bazterretako hiru espezieak:

### Otea edo otaka (*Ulex gallii*):

Gaztelera: Argoma.

Metro eta erdiko luzera har dezaketen adarrak gorantz zein alboetarantz hazi ohi dira. Hosto guztiak arantza bihurtuak ditu eta hauetako bakoitzaren oinaldean ileak ateratzen zaizkio. Arantzek 15-20 mm neur dezakete.

### Ote zuria (*Ulex europaeus*):

Gaztelera: Tojo.

Honen zurtoin adarkatu eta iletsua sarri erraz heldu ohi da bi metrotara ere. Otakak bezala hostoak 12-30 mm luzerako arantza gogor eta zuzen bihurtu zaizkio. Ote zuriaren loreak oso usaintsuak dira.

### Otabera (*Genisa hispanica*):

Gaztelera: Aulaga.

Denetan txikiena eta desberdinenena da. Ez du metro erdiko altuera gainditzen eta bi motatako adarrak dauzka: alde batetik adar loredunak, non hosto lantzeolatuek ezartzen diren, eta bestetik lore gabeak, bertan hostoak arantza bilakatu dituelarik. Aurreko bien irudi kaotiko eta baldarraren aurrean, otaberak itxura borobildua azaltzen du.



Otea

Mikel Arroiabe



## LASAGABASTER

### Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE  
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

## OPEL



### Zerbitzu Ofiziala

- Kotxe marka guztien konponketak
- Zerbitzu guztiak

Basabe Poligonoa, A-1-3 •  
Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 /  
Fax: 77 17 20  
ARETXABALETA





# G



abonak pasatu diren arren, oroimenean jai egun hauei bukaera eman dien errege kabalgata daukagu. 50. hamarkadan, zehatzago esateko 55-56. urteetan egin zen aurrenekoz kabalgata gure herrian. Luistarren inizatibatik sortua, talde hau izango zen hasierako urteetan antolakuntza lanaz arduratuko zena. Luistarren taldea, Congregación de San Luis Gonzaga alegia, parrokiako mutilek osatzen zuten, baldintza soltero egotea zen. Horregatik 15 urte betetzean partaide egin zitezkeen eta ezkondutakoan kanpora.

Kabalgata egin zen lehen urteak ilusioz eta gogoz betetakoak izan ziren. Lehen urteko kabalgata sinplea izan zela gogoan du Miguel Igartuak, orduko Luistarren taldeko partaideak. “Geuk egin genituen erropa guztiak. Acción Católicako emakumeak, Marien alabak eta herriko jostunek Mitarte kalean zuten lokalean josi zituzten erropak: moroenak, soldauen gonak, antortxeroenak, etabar.”

Beste garai batzuk ziren, “herri guztia zegoen laguntzeko gertu” dio Miguelek. 100 lagunetik gora izaten zen kabalgatan eta beste kopuru handi bat antolaketaz arduratzen zena.

Kabalgata, maristetatik irten eta herri guztia zeharkatuz, Tubosetaraino joaten zen, bidean hainbat geldialdi eginez, tartean Otoran jartzen zen Belenean ere bai jakina. Oroitzapen hauen barruan bazen bestelako bitxikeriarik ere. Artean kotxe gutxi ziren gure herrian, urtero kotxe bat izaten zen kabalgata zabaltzen”. Honek argia ematen zuen izar batekin, astiro-astiro zabalduko zituen jendez betetako herriko kaleak. Atzean soldauen ostean, tanbor eta tronpetaz bandakoek alaitzen zuten kabalgata, 8-10en batek. Gero oraingo antzera erregeak eta pajeak zetozen.

Kabalgatak aurrera jarraitu zuen Luistarrekin batera. Taldea desagertzean, ostera, errege kabalgata egiteari ere utzi egin zitzaion urte batzutan, harik eta Alkar taldearen eskutik ostera berreskuratu eta indarra hartu zuen arte.

Azken 12-14 urteetan Udala arduratu da antolaketaz, orain guraso elkartearen laguntzaz antolatzen da.

Argazkian erregeari muxu ematera doan haurra **Julen Zuazabetia** da. Gainontzekoak ezin izan ditugu ezagutu, aurpegi belztuek zailtasunak eman dizkigute horretarako, baina norbaitek ezagutuko balitu eskertuko genuke jakinaren ganean jartzea.

Argazkia: Julen Zuazabetia.  
Informazioa: Miguel Igartua.

## LANA

◆ REMeko 3. mailako giza-zientzia arloko matematikak emateko pertsona behar da. Deitu 79 71 32 telefonora.

### ◆ Langaiko lan eskaintza

Deba Garaian kokatutako enpresak **bi galdaragin** behar ditu. Ref. 5064/1.

Arabako lautadan kokatutako enpresak behar du:

**Informatika arloko komertziala** Ref. 4058/2

**Grua-Torre operadorea** Ref. 5181/1

**Mantenimenduko elektronikoa** Ref. 5186/1

**Logistika arduraduna** Ref. 5192/2

Donostian kokatutako enpresak **Makina erremintaren saltzailea** behar du. Ref.41119/1

Tolosa inguruan kokatutako enpresak **Administratiboa** behar du. Ref. 5152/2

Beheko Bidasoan kokatutako enpresak behar du: **Idazkaria** Ref.5175/2

**Maketatzaile-Diseinatzaile grafikoa** Ref. 5178/3

Andoinen kokaturiko enpresak **Produktoaren burua** behar du. Ref. 5194/0



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu **79 01 05** telefonora. Dohainik da.

## LEHIAKETAK

### ◆ Logotipo lehiaketa

**Aretxabaletako Gazte taldeak** logotipo lehiaketa antolatu du. Logotipoan "Atxabaltako gazte taldea" hitzak edo AGT siglak agertu beharko dira. Aurkezteko epea otsailaren 6a da. Lanak Ezkutu tabernan sobre batean egilearen izen-abizen eta telefono zenbakiarekin aurkeztu beharko dira. Din-a 4 neurrian. Sari banaketa otsailak 8an.

### ◆ Logotipo lehiaketa

Arrasateko gazte astea ospatzen dela eta "**Gazteok batuz elkar-lana bultzatu**" logotipo lehiaketa antolatu da. Saria 15.000 pta. Aurreko lema erabiliz logotipoa egin behar da; gazte talde desberdinen arteko elkarlana adieraziz. Logotipa koloretan eta zuribeltzean entregatu behar da. Epea: Urtarrilak 30a. Entregatzeko lekuak: Arrasateko Gazte Bulegoa, AED.

## ETXEBIZITZA

◆ Udalak bi garaje saldu behar ditu Bedarretako San Migel auzoan. Salmenta enkante bidez egingo da. Etxebizitza batek 43 m2 ditu, gutxiengo prezioa: 2.500.000 pta. Besteak 17 m2, gutxiengo prezioa: 1.500.000 pta. Eskaintzak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 17a da. Informazioa udaletxean 79 10 00 telefonoan.

◆ Pareja batek etxebizitza erosiko luke Portasolen. 79 04 62. Mari Josegatik galdetu.

◆ Urtarrilaz geroztik Zuhaitz taberna alokatzen da Leintz Gatzagan. 71 41 21.

## DENETARIK

◆ Karreterako bizikleta salgai. Egoera onean. 79 29 12 (dendako ordutegian deitu).

◆ Afiela aurkitu zen jubilatuen egunean. Interesatua udaletxeko gizarte zerbitzutik pasa dadila.



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28  
**ARETXABALETA**

## CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

## ITURGINTZA

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

# Urte berri on!



*M. J. Arretxe*

Badakit ez dela egun hauetan agurtzeko batere modu originala eta batzuk onezgero iguinduta egongo zarete berba hori entzuten. Batzuetan ego-kiena originala ez izatea izaten da, beraz, urte berri on!

Aurten batzuentzat behintzat egutegi kapri-txosoak izan direla eta, luze joan dira gabonetako oporrak. Denetatik ikus-entzuteko aukera izan dugu bertan.

Loramendi elkarteak urtero moduan Euskal liburu azoka antolatu zuen. Ez dakit asko saldu zuten baina jende dexente animatu zen begiradaxo bat ematera.

Lokal berean egin zen trenaren erakusketak ere, arrakasta izan zuen. Ni trenan kendu zutenean neskatila koxkorra nintzen, eta ez dut apenaz gogoratzen. Beste batzuk, berriz, nostalgiaz begiratzen zituzten argazkiak eta beraien ahotan gauza bat entzun zitekeen: "gauza eder hori ere galdu genuen".

Opor egun hauen barruan bada egun berezi bat: Inuzente eguna. Aurten intsumiso eguna ospatu zen egun horretan. Ez dakit eurak "inozenteak" direla errebindikatzea nahi zuten edo batzuk inozoak balira moduan tratatu nahi zituzten. Kontua da beraien egitarauan Mus inuzentea zegoela iragarrita eta batzuen artean haserre handia piztu zen broma zela jakin zutenean. Batzuk karta kontuetan ez dute jolasik onartzen.


Egun horretan pozik gelditu zena **Garikoitz Garcia** izan zen. Ezkutu-Arlutzeko Mallorkarako bidaia irabazi zuen eta.

Beste ekintza kultural batzuekin jarraituz, esan behar da, **Naroa Enekotegik** eman zuen emanaldia oso arrakastatsua izan zela. Gainera genero hori gustoko duzuenontzat beste emanaldi bat iragarrita dago otsailerako. Atxabaltako koruak Guridiren "El Caserio" opereta antzeztuko du.

Kirol kontuetara pasatuz, pelota dugu protagonista. Eibarko txapelketan parte hartu zuten atxabaltarrek eta **Andoni Altube** eta **Haritz Kortabarría** txapeldun izan ziren alebin kategorian.

Bestalde, **Jose San Migelek** jokatu ez baina pelotaren alde egindako lanagatik gabonetako otarra eder bat jaso zuen.

Eta badakizue, urte berriaz utzi erretzeari, edateari, gehiegi jateari, ez haserretu, formalak izan, etxeko lanak egin... eta dituzuen bizio guztiak baztertzeko juramentua egin, gero izango duzue iritzi hori aldatzeko aukera luzea.



## Amaya o los vascos en el siglo VIII

F. Navarro Villoslada  
Ttartalo argitaletxea

## Liburutegiko txokoa

**O**raingo honetan ez goaz liburu berri bat aurkeztera, aintzinako liburu bat baizik. Nahiz eta aspaldiko idatzia izan edizio berri bat kaleratu zuten 96an. "Amaya o los vascos en el siglo VIII" F. Navarro Villoslada autoreak idatzitakoa da orain dela 100 urte baino gehiago, 1879. urtean, berak 61 urte zituela. Liburu famatua dugu gure artean, izan ere, euskaldunon historia kontatzen duenez, hainbat alditan argitaratua izan da.

Prosas idatzitako epopeia honetan, bitxikeria moduan azpimarratu daiteke autoreak euskaldunei liburuaren sarreran ematen dien izena: "Los aborígenes del Pirineo occidental". Bertan, euskaldun herriaren islada den emakumearen irudia ageri zaigu: Amaya. Era berean, prosarekin batera idazleak poesia ere tartekatzen du, batez ere, natura, sentimenduak eta pertsonaiak deskribatzeko orduan.

Bukatzeko aipatu behar liburu honen argitaratzailea Ediciones Tarttalo dela.

Joseba Lopez de Armentia

URTARRILA

10  
zapatua

**TAKOLO, PIRRITX ETA  
PORROTX**

Kirol etxean arratsaldeko 5etan.  
Sarrerak aurrez kultur etxean edo  
ludotekan 300 pezetatan. Takilan  
500 pta. Aretxabaletako Udalak  
antolatuta.

II  
domeka

**MENDI IRTEERA**

**Zaraia M.Tak IPULIÑO**

**mendira** (Berastegi ondoan)  
egingo du irteera. Goizeko 8etan  
Zaraia lokaletik.

16  
egukotxa

**ANTZERKIA**

**Deabru Beltza** taldearen  
**Kontzertu beltza** antzezlan  
ikusgai egongo da Loramendi  
elkartean arratsaldeko 8etan.

18  
domeka

**ANTZERKIA**

**Karra Elejalderen "La cabra  
tira al monte"** antzezlan  
ikusgai egongo da Arrasateko Amaia  
antzokian arratsaldeko 7,30etan.

21  
eguztana

**KONTZERTUA**

**Aretxabaletako akordeoi  
orkestren eskutik** kontzertua.  
Aretxabaletako parrokiaren  
arratsaldeko 8,30etan.

22  
eguna

**SARI BANAKETA**

**Loramendi literatur lehiaketako  
sari banaketa.** Arratsaldeko 7etan  
Loramendi elkartean.

**OHARRA**

Aretxabaletako abesbatzak  
atzeratu egin du gabon ostean  
eskaini behar zuen Guridiren  
"El Caserio" zarzuela.  
Azpeitiako abesbatzarekin  
batera burutzen ari diren  
opereta hau otsailaren  
lehenengo hamabostaldian  
eskainiko digute.  
Aretxabaletako eta Azpeitiako  
abesbatzaz aparte, solistak eta  
musikariak ere izango dira.

Z  
I  
N  
E  
A




**ZUZENDARIA:** Alex de la Iglesia.  
**AKTOREAK:** Rosie Pérez, Javier  
Bardem.

**Perdita Durango**

**Perdita Durango** Alex de la Iglesiaren azken  
pelikula espainiar eta mexikar produkzioa da.  
Sexua, biolentzia, maitasuna eta akzioa  
nahasten dira bertan. Emakume eta gizon  
batek (Rosie Pérez eta Javier Bardem)  
estatubatuar bikote gazte bat bahitu ondoren,  
Mexiko eta Estatu Batuetako muga inguruetan  
bidaia zoro bati ekingo diote. Beraien helburua,  
industria kosmetikorako erabiliko diren fetu  
batzuen kargamentua Las Vegas hirira  
eramatea da.

## Takolo, Pirritx eta Porrotx 98ari ongi etorria emanaz

Hiru pailaso ospetsuak ikuskizun berri batekin datoz oraingo honetan: makarroiak antzezlanak. Makarroiak direla eta ez direla moldatu dute antzerkia baina umeek ondo pasatzeko xelebrekeri berriekin, istorio dibertigarriekin, kanta eta dantza alaiekin eta une goxoekin beteta hemen izango ditugu datorren zapatuan. Ikuskizunera lagun ugari hurbilduko dela eta Kultura sailak saioa kirol etxean egitea erabaki du. Ondo pasatu eta on egin! Zapatuan arratsaldeko 5etan eskainiko dute



umorez betetako ikuskizuna kiroletxean.

### Auzoetako mezak:

#### Urtarrila (domeka guztietan)

- Galartzan 11etan.
- Koruetan 12etan.
- Arkarazon ordu 1etan.

#### Otsaila (domeka guztietan)

- Galartzan 11etan.
- Larrinon 12etan.
- Mendiolan ordu 1etan.

## Z A R A I A Z I N E M A

Urtarrilak 9, 10, 11, 12  
**PERDITA DURANGO**  
 Urtarrilak 11 (Umeentzat)  
**MOWGLI Y BALOO**  
 Urtarrilak 16, 17, 18, 19  
**CONSPIRACION**  
 Urtarrilak 18 (umeentzat)  
**AIR BUD**

#### Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15  
 Domeka: 5etan (Umeen sesioa)  
 7,30  
 10,15  
 Astelehena: 10,15



BEHARREZKO  
 TELEFONOAK

### Aretxabaleta

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltea	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

### Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

### Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00



Aretxabaletan sortua bada ere Eskoriatzan bizi da Jose Mari Segovia udaletxeko Hirigintz teknikaria. Aurten hamar urte bete ditu udal-txean, beraz urte hauetako obra eta eraikinak hurbiletik jarraitu ditu. Bere denbora librean pasiatzea, ehizan eta arrantzan egitea gogoko du.

**• Zein da zure lana udaletxean?**

Hirigintza arloko arduradun tekniko naiz. Besteak beste, hirigintz planifikazioa, honekin lotutako informak egin, zerbitzu eta obretako antolaketa lana etabar.

**• Zenbat langile zaudete hirigintzan?**

## “Ehizan eta arrantzan egitea gustatzen zait”

Obra eta zerbitzuetako bi ardura-dun, beste bi brigadan, administraria eta ni. Gainontzeko guztiak azpikontratatuak dira.

**• Lan kontuak alde batera utziaz, zeintzuk dira zure afizioak?**

Ehizan eta arrantzan egitea, mendira joatea, igeriketa, etabar.

**• Nora joaten zara ehizan?**

Valladolideko herri batera. Bazkide batzuen artean koto bat hartzen dugu.

**• Zer ehizatzen duzu normalean?**

Erbiak eta eperrak.

**• Ekologisten inguruan zein iritzi duzu?**

Ehiza gustatu arren, ekologista sentitzen naiz, natura barruan sentitzen dut. Nik ezagutzen ditudan ehiztari gehienei mendira joatea eta natura izugarri gustatzen zaiela esan beharra daukat.

**• Igeriketa ere aipatu duzu, non praktikatzen duzu?**

Orain artean Arrasateko kiroletxean baina denbora gutxi daukat. Eskoriatzako pistinan bazkide egiteko asmoa daukat.

**• Bidaiatu duzunetik zein leku gustatu zaizu gehien?**

Ez naiz oso urrun ibili. Espainia aldean asko ibilia naiz, Asturias gustatzen zait.

**• Etxean zein lan egiten duzu?**

Denean laguntzen dut, plantxatu ezik.

**• Zeri diozu beldur?**

Familiari gerta dakiokenari.

**• Zein iritzi duzu insumisioari buruz?**

Gaur egun borrokatzen ari garen gauza justuenetarikoa bat da.

**• Biziorik?**

Bazkal ostean puroa erretzea.

**• Irla batera joan ezkeror zer eramango zenuke?**

Familia.

**• Euskara etxekoa ala batua?**

Batua, ikasten ari naiz, baina momentu honetan oso denbora gutxi daukat.

**• Zure esku balego zer egingo zenuke plazan?**

Beste plaza txikiago bat egin plazaren barruan. Plaza bera haundiegia da ekintzak egiteko.

**• Birtute bat?**

Pazientzia.

**• Edari bat?**

Ura eta Errioxako ardoa.

**• Non pasiatzeko ohitura duzu?**

Eskoriatzatik Aretxabaletara arteko trenbidean edo Bolibar aldera.

**• Gehien eta gutxien gustatzen zaizun janaria?**

Potaje guztiak, gutxien sandwich erako janaria.


## KOMIKIA

### EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe

TELEBISTAN JOKATZEN NERE EKIPOA  
NERE EKIPOK PARTIDOA IRABAZI  
APOSTUTAN NI NAIZ NAGUSI

(Ume Gaiztuak)



# Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Leintz Udal Euskaltegira!



## Urte berri on!

### Gogoratu...

ondo pasaz ikas dezakezula.  
Oraindik denboraz zaude Udal  
Euskaltegian izena emateko.

### ANIMA ZAITEZ!


**LEINTZ  
UDAL EUSKALTEGIA**

Durana, 11  
ARETXABALETA  
Tel.: 79 21 68

Fernando Enparantza  
ESKORIATZA



## *Kalitateak mugarik ez.*



## ARGÍ-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano  
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia  
Tel.: 77 11 30  
ARRASATE

# ETXE MOBEL

MUEBLES

ALZARIAK

**LOGELETAN  
maisua**

**Zapatu  
arratsaldeetan  
zabalik!!**



**Eta orain  
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa  
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia.

Bertako profesionalek zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 79 41 82

**ARRASATE**